

ttipi ttapa

329


2002ko uztailaren 4a • XXII. urtea



**Iban Isasiren
proiektua saritua**

03


Gazte honek egindako «eguzki etxe jasangarria Iturenen» ikasketa bukaerako proiektua saritu dute EHNk eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko katedrak.



**Baztan Likoreak
enpresa simulatua**

04

Lekaroz-Elizondoko Lanbide Heziketa Institutuko ikasle eta irakasleek bigarren urtez osatu dute Baztan Likoreak enpresa simulatua.



**Txapela
Leitzara**

24

Besta zoriontsuak denei



Beti zuekin

NAFARROAKO  KUTXA

Zuen kutxa

DATUAK...

- Iturendar honek irabazi du 2002an Nafarroako Unibertsitate Publikoko Energia Berriztagarrien katedrak eta EHN enpresak, Ikasketa bukaerako proiektu hoberenei ematen dieten bi sarietako bat.
- Proiektuan, Iturenen eguzki-etxe jasangarri bat egitea aztertzen da, eta analisi orokorra egin ondotik, antzeko etxe arrunt batekin konparatuta, dezente aurreztuko litzateke: energia-kontsumoaren kopuru osoan %40 guttiago.



Iban ISASI *Nekazaritzako ingeniari teknikoa*

KARMELE TOLOSA

«Eguzki-etxeak egitea hemen ere arras errentagarri da, orokorrean»

Joxemanuel IRIGOIEN

Zer da proiektu honetan aztertzen duzuna?

Proiektuan, Iturenen eguzki-etxe bat egitea aurrikusten da, 5 lagunentzako kapazitatea duena, eta gaur egungo standarretara parekatzen ahal dena. Gero, kontzeptu horri gehitu egin zaizkio gaur egun jasangarritasunarekin lotzen den kontzeptu orokorra: inguru naturalean integratzea, materialen erabilera (ustiapenetik hasi, prozesu produktibo osoarekin segü, eta etxearen eraikuntza buka-tuz), bertzetik, etxeak berez jasangarria izateaz gain, buruaskitasun nahikoa izan behar du bere barne kontsumorako (ur beroa, elektrizitatea, berokuntza...) eta baita sortzen dituen ur-zikinak ere eguzkia bitartez garbitzeko.

Azken finean, sistema osagarriak erabili ditut. Adibidez, etxeko elektrizitatea lortzeko zelula fotoboltaikoak aurrikusi ditut; panel termikoen bitartez ur-beroa lortzea urte osoan; inertzia termikoari ahalik eta etekinik handiena ateratzea leihoeekin negutegi efektua sortuz; kalefakzio siste-

«Auniztan, hasieran garestixeago pagatzen dena, luzera, merkeago ateratzen da. Eguzki-etxe jasangarriekin ere hori gertatzen da»

ma egokiena bilatuz; leiho, ate eta paretan aislamendu ona segurtatzen duten materialak erabiltzea etxea egiterakoan; etxea eguzkiari begira egitea... gauza horiek denak hartu ditut kontutan, jakina, gaur egun teknologiak eta materialek eskaintzen duten posibilitateak goienara aprobetxatuz.

Eta zein ondorio ateratzen duzu?

Kontaketa edo konputu osoa eginez posible dela %40 aurrezteko energia kontsumoan. Datu hori, arestian aipatu ditudan aspektu horiek guztiak kontuan hartuz ateratzen da, azken finean, Europako standarrekin parekatzen ahal dena. Hori bai, datu hori Iturengo ezaugarri klimatologikoak kontuan hartuz atera zait.

Dena den, proiektu hau gisa honetako lehenbizikoa da Unibertsitate honetan aurkeztzen dena, ez nuen eredurik. Hemendik aurrera egingen

diren proiektuak ez dira hutsetik abiatuko.

Halere, gisa honetako sistemak ez ote dira sobera teorikoak?

Inguru honetako herrietan, nik dakidala, gaur egun ez da holako etxerik. Ezagutzen dut bat Donostia inguruan, bertze bat Billabona inguruan, Tafalla aldean ere...

Bainan garestiagoa ere izanen da holako etxe bat egitea?

Bai, nire kalkuluen arabera %13 garestiagoa da. Dena den, honekin gertatzen da edozein elektragailu erosten duzunean bezala. Badaude kontsumori begira A, B, C... Seguruenik D mailakoa, erosteko merkeagoa izanen da, bainan gero, gastua egingen duzu elektrizitatean. Aldiberean, A erosita D-rena lortuko duzu 5 urteren buruan, bainan gero, 10-15 urte gehiago iraunen dizu. Hor dago kokka. Auniztan, hasieran garestixeago pagatzen dena, luzera, merkeago ateratzen da. Eguzki-etxe jasangarriekin ere hori gertatzen da.

Halere, Nafarroako Gobernuak laguntza handiak ematen ditu energia berriztagarrietan inbertsioak egiteko.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Lekaroz-Elizondoko Bigarren Hezkuntzako Institutuan simulatu den Baztan Likoreak enpresako langileak –ikasle eta irakasleak– azken lan egunean.

LEKAROZ-ELIZONDO INSTITUTUKO IKASLEEK KUDEATUA

Baztan Likoreak SAS Enpresa Simulatuak bigarren urtea egin du

Lekaroz-Elizondoko Lanbide Heziketa Institutuko ikasle eta irakasleek bigarren urtez osatutako Baztan Likoreak enpresa simulatuak 2001-2002 ikasturtea itxi zuen ekainaren 18an. Enpresa simulazioa geletan erabiltzen hasi den lan metodologi berri bat da. Joan den urtean, Nafarroan aitzindari izan ziren Lekaroz-Elizondo Institutukoak. Bere helburua ikasleek enpresak gaur egun eskatzen dituzten lan eta giza gaitasunak garatzea bermatuko duen enpresa ingurunea sortzea da.

Aitor AROTZENA

Baztan Likoreak enpresa simulatua Europako 17 herrialde, Amerikako 3k eta Australiak parte hartzen duten SEFED proiektua eskolan kokatzearen emaitza da. Honen garapenerako, Lekaroz-Elizondoko Bigarren Hezkuntzako Institutuak Espainian proiektu honen kudeatzaile den INFORM Fundazioaren, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Saila eta CEIN-en aholkularitza eta laguntza izan du.

Metodologi honetan ikasleak dira enpresa jarduera burutzen dutenak. Ikasleak talde ttikietan antolatuz, Baztan Likoreak dauden departamentuetan txandatzeko dira, hauetan sortzen diren hainbortze prozesuetaz arduratuz: katalogoen edizioa eta sustapen berri baten irteera eskaintza, hornitzaileekin hartuemanak eta negoziazioak, kontabilizatu, langileak kontratatu, nominen kudeaketa...

Honela, Baztan likoreak enpresa erreala baten erreplika bihurtzen da. Maite Ariztegi arduradunak aipatu digunez, «dena simulatua da, baina errealitatean bezala, hilabetero ordaindu behar da soldata, seguridade soziala likidatu behar da, bajak daude, istripuak, agiri horiek kudeatu behar dira... Neretako gauzarik politena eta beldurgarriena egunero atetik sartu eta zer gertatu behar den ez jakitea da. Goiz lasaia izaten ahal da edo arazoak suertatzen ahal dira: fakturak gaizki egin direla, txkeak bueltan datozela, nomina igorri eta gaizki kalkulatu dagoela, ordainketa baldintzekin konforme ez dagoen bezero baten deia ... hainbortze kasu!».

Baztan Likoreak 2001eko abenduan hasi zuen bere jardura eta hau aitzinera eramateko Licores Baztan egiazko enpresaren laguntza izan du, bere errepikapen simulatuaren en-

Maite ARIZTEGI *Enpresa simulatuko arduraduna*

“Teorian ikasten dena praktikan gauzatzeko tresna da bulego simulatua”

Zein helbururekin osatzen da Baztan Likoreak bezalako enpresa simulatu bat?

Administrarritza arloan hutsuena somatzen genuen, berriz espezialidadetan ikasleek izaten duten tailer hori. Orduan, teorian ikasten dena praktikan gauzatzeko tresna da bulego simulatua. Ikasleak enpresa-errealitateari zuzenean aurre egiteko aukera

izanen du, dituen arazoekin eta zailtasunarekin, honek komunikazioa, lankide eta nagusiekiko harremanak edo hizkuntzen praktika garatzen lagunduko dio.

Zer egiten da honelako enpresa simulatu batean?

Simulazio hitza pixko bat arraroa da. Produktua fisikoki ez da saltzen, ez da trukatzeko fisikoa. Bakarrikan katalogo ba-

tzuk eta argazki batzuk dauka. Salerosketa, azken finean fakturazioa, ordaintzea edo kobratzea da... Produzitu bai, produzitzen dugu: sarean lehengaiak erosi, fakturazio programa baten bidez produkzio agindua eman eta lehengaiak sartuz eta osatuz, programa horrek automatikoki produktu bukatua egiten du, baina ez da fisikoa, kodigo bat baizik.


presa laguntzaile edo tutore lana egin baitu.

Joan den urtean egin zen lehen aldiz aktibitate hau, eta irakaskuntza ertainetan, gisa honetako lehena izan zen Nafarroa osoan. Maite Ariztegi irakasle eta arduradunaren erranetan: «Hezkuntza arautuan, esperientzia hau gauzatzen Nafarroako lehendabizikoa izan zen Lekaroz-Elizondoko Institutua. Hezkuntzatik kanpo bazen berriz talde bat, Cederna-Garaluren bidez osatutakoa, karrera akিতua zuten lizentziatu batzuek esperientzia har zezaten bideratua. Ideia hori ezagutu eta institutuan paratzeak polita zela iruditu zitzaigun».

AURTENGOA BERRIKUNTZAK ETA WEB ORRIALDEA

Aurtengo ikasturtean berrikuntza batzuk sartu dira, honela, produktuen merkaturatze hutsetik honen ekoizpenaren simulatua egin da edo enpresaren web orria ere diseinatu ondoren Espainiako enpresa simulatuen sarean zintzilikatu da. Enpresa simulatua, Administarritza arloko ikasleak aritzen dira. «Orain arte goi mailakoak izan dira, lehen eta bigarren mailakoak. Aurten Erdi Mailakoekin probatu nahi genuen, ea nola moldatzen ziren hainbat egoera ximpletan. Nominen kudeaketa, adibidez, konplikatu da eta hori ez dute egin, baina berriz kontuetan ongi moldatu dira, jarrera aldetik aunitz inplikatu dira. Ikasturte osoan norbait egoteko moduan planteatu da. Normalean bigarren mailakoak hasten dira, eta haiek enpresetara praktikara joaten direnean, lehen mailakoak edo erdi mailakoak sartzen dira. Horretarako finikitoak egiten eta gero, kontratazioak egiten ere ikasi behar da. Edozein lantegitan suertatzen ahal zaiena, alegia».

BI URTETIK BEHIN BARTZELONAKO AZOKARA



A.A.

Heldu den urtean berriz ere Bartzelonako azokara joan nahi dute irakasleek.

Baztan Likoreak SAS lantegian ekoizten den produktua simulatua bada ere, joan den urtean likoreak hartu, Bartzelonara bi urtetik behin egiten den azokara joan eta harrera ona izan zuten, Maite Ariztegi erran digunaren arabera. «Espainian, momentu honetan 71 enpresa simulatudaude Institutuetan eta bi urtetik behin halako azoka bat egiten da Bartzelonan, bakoitzak bere produktua erakusteko eta saltzeko». Salmenta sarea handitzeko premia zuten enpresa simulatuak

eta horrek, azkenean, urruntasunak baino gehiago balio izan zuen: «Gonbidatu ziguten eta hasieran zalantza izan genuen, urruti dagoelako. Azkenean animatuginen, gehien bat sarean toki bat bilatzeko, ez baitziguten ezagutzen eta ez ziguten erosten. Espainian ez dute ezagutzen zer den patxaka edo zer den patxarana. Orduan gogoratu zitzaigun produktua hartu eta das-tapena antolatzea. Gainera, hemengo gauza berezia ere eraman genuen, trikitixa. Harrituak geldi-

tu ziren eta giro berezia sortu genuen». Antolatzailleek eskertu egin zieten: «Azoka batean zeuden, denak bere tokian, arras ofiziala, jende gaztea denez harreman komertzialak hasteko beldurra izaten dute. Giro honekin erraten ziguten lagundu zuela stand batetik bertzerara pasatzen, barrera hori hautsi zela. Aurten ez da azokarik eta hori zuten pena ikasleek. Heldu den urtean berriz ere izanen da eta nere ustez, Nafarroa osoan enpresak bildu eta joanen gara».

Lege Gordailua: NA-1324/85

ISSN: 1578-4673

Frankeo Itundua: 34/79

Tirada: 7.100 ale

ttipi-ttapa aldizkaria

Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88
Faxa: (+34) 948 63 12 91

www.topagunea.com

ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, S.L.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Aitor Arotzena, Rakel Gofñi. **Berriemaileak:** Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Ana Mari Etxeberri, Frederick Berruet, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txopereña, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Asier Gogortza, Rakel Gofñi.

Kolaboratzaileak: Rakel Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa...

Inprimategia: Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerreka Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkarteak...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	21 €
Espainia	21 €
Ipar Euskal Herria	33 €
Europa	33 €
Amerika	103 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka, Leitza eta Areso	18 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

• IRAKURLEAK MINTZO •

Hizkuntzen arteko benetako parekotasuna

Lekaroz-Elizondo BHIko irakasleok Nafar Gobernuko Hezkuntza Departamentuak martxoaren 27ko 89/2002 Foru Aginduan euskarari ematen dion trataera dela eta, gure desadostasuna adierazi nahi dugu. Bertan, bertzeak bertze, ordutegia zehazten da.

Egitura eta Ordutegia atalean, laugarren artikuluko 2. puntuan erraten da: «los alumnos que cursen Bachillerato conforme a los modelos D o A dispondrán de tres horas en cada uno de los cursos para el estudio de la Lengua Vasca y Literatura...». Bertzetik, legearen I gehigarrian, D ereduan, Gaztelania eta Literatura arloari, Batxilergoko bi mailatan astean launa ordu esleitzen zaizkio.

Honek aintzineko 43/1998 Foru Dekretuak agintzen zuena aldatzen du bi arloetako ordutegian. Hezkuntza Administrazioak esleitzen duen argido **bakarra «Nafarroaren errealitatea»** da. Dirudenez, ikasleen aukera berdintasuna bermatzeko, batxilergoak egitura bakarra behar du izan, ikasleek dena delako eredu hautatu dutela ere.

Gure iritziz, aldaketa honek zalantzan jartzen du Batxilergoko curriculum eta egitura arautzen dituen martxoaren 15eko 62/2002 Foru Dekretuko 13.a artikuluan ageri den helburua: «dominar la len-

gua castellana, y en su caso, la lengua vasca». Erabaki honek Euskal Hizkuntza eta Literatura arloaren izaera instrumental eta gidatzailerak kolokan paratzen du eta ikasle euskaldunen oinarritzko eskubideak urratu.

Bertzalde, Ikuskaritza Zerbitzuak 2. eta 4. DBHn egin nahi dituen kanpo ebaluazioetan, nabarmena da berriro ere ez direla bi eredu linguistikoetako ezaugarriak kontuan hartu. Gaztelania eta Literaturaren neurrak probak bi ereduaren egiteko asmoa badago ere, Euskal Hizkuntza eta Literaturarena, berriro, D ereduan soilik egiten da. Berriro ere, hizkuntzen trataera desberdinarekin egin dugu topo, euskararen kaltetan.

Hizkuntza bati ez bazaio ematen trataera zuzena Hezkuntzan, zereserresgarritasun izan du? Nork, nola, zertan oinarrituta eta zer asmorekin erabaki lezake hizkuntzak duen balioa? Neurtu al daiteke hizkuntza baten balioa? Zein ezaugarri bete behar ditu hizkuntza batek hizkuntzat hartua izan dadin?

Gogoeta hauek bul-tzaturik, hizkuntza desberdinen arteko BENETAKO PAREKOTASUNA eskatzen dugu; eta horretarako beharrezkoa da 89/2002 Foru Agindua geldiarazi eta nahitaezkoak diren aldaketak egitea.

Lekaroz-Elizondo BHIko irakasleak.

Navarra y el vascuence liburuaren inguruan

Batzorde honek, Victor Manuel Arboloaren Navarra y el Vascuence liburuak irakurri eta aztertu ondoren, iritzi publikoari bere keza helarazi nahi dio bertan garatzen diren edukin anitzengatik eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentuko Unibertsitate eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak egin dion argitalpenengatik.

Zehaztasun zientifikorik gabekoa, euskararen garapenaren ikerketan hutsune nabarmenak dauzka liburuak, horrela, bertze zenbait gauzen artean, bigarren mailako alderdiak nabarmenitzen ditu, gure historiaren mugari diren gertakariak atzendu eta bertze batzuk ixiltzen ditu, adibidez Francoren diktadura garaian Euskarak jasandako errepresio bortitza, neurri handi batean hizkuntzaren atzerakada eta ondoren nafar gizartean bere berreskurapenerako zailtasunak azaltzeko giltzarri dena.

Argitalpen honetan, bereziki hondarreko kapituluetan, joera alderdikoi garbia antzematen dugu, Nafarroako Gobernuak, Unibertsitate eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzaren bitartez, egiten ari den euskararen erabileraren arautze edo ukatzearen ildotik. Mesede kaxkarra egiten

ari zaio gure kultur ondasun hobe eta aberatsenari.

Egileak, Euskaltzaindiaren inguruan egiten dituen zenbait baieztapen, funsgabeak eta lekuz kanpokoak jotzen ditugu. Bere iritziak, iritzi baino gehiago aurreiritzi dira. «Akademia, Nafarroan gertatutakoaren eta gertatzen ari denaren at dagoela dirudi...», baieztapen hau bidegabe izateaz gain, xelebrekeriaren muga dago.

Egileak bere orrietan kritikatzeko duen lortu du hain justu, hau da, bere liburuak euskara biziki maite dugu nontzat, euskararen berreskurapena eta normalizazio irrikatzeko du nontzat, arma jaurtigarria bihurtu du.

Juan Telletxea Urroz, Malerreka Mankomunitateko Euskara Batzordeburua.

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Diario de Navarra 02-06-24

«Pilarreko baselizaren lanak egiteko modu bakarra auzolana zen, herritarren lana, ezin baiginuen enpresa bati ordaindu. Zortzi edo hamar herritar etortzen ginen astero, bertze batzuk ahal zutenean etortzen ziren eta hirugarren talde batek dirua eman zuen».

Beñardo AMIANO
Amairuko alkatea
D.Navarra 02-06-24

«Partida gehiegi luzatu da, denbora asko igaro dugu itxaroten; ez da erraza tentsioari eta kontzentrazioari eustea. Fisikoki sasoari eustea ere ez

da erraza, gorputza prestatuta egoten da data batzuetan ongi egoteko, eta luzatzen bada kaltegarri izaten da. Nik ere banuen beldur hori, partidan nola egonen nintzen, nola sentituko nintzen. Zorionez, nahiko lasaia naiz eta lasai atera nintzen frontoira, eta gogo handiarekin. Batez ere, gogo handiarekin, partida on bat egiteko ilusioarekin. Irabazi edo galdu alde batera utzi eta partida on bat eskaini nahi nion frontoian bildutako jendeari, eta nire aldetik hori egin nuen».

Abel BARRIOLA
Leitzako pilotaria
Egunkaria 02-06-25

• 11 GALDERA LABUR •


Joxemanuel IGOA Lesakako kamioi gidari eta akordeolaria

Zer da zailago, kamioiari gorpila aldatzea edo akordeoiarekin polka bat jotzea?

Kamioiari gorpila aldatzea, noski!

Kamioian, musika aditu edo emisoratik solastu?

Musika aditzea nahiago dut.

Noizbait besta egin duk akordeoirik gabe?

Batzutan bai, guttitan eh! Peñen egunean eta horrelakoetan.

Akordeoiarekin jotzeko piezarik zailena?

Zailak aunitz badaude. «Perlas de cristal» ez dut egundaino ongi jo.

Eta kamioiarekin egiteko bidairik txarrena?

Ezagutzen ez dutun tokira edo obli-gaziez egin behar dutuna.

Lesakako leku izenak ezagutzeko ikastaroa eman duk. Nola ezagu-

tzen dituk horrenbertze?

Aitarekin ehizian joaterakoan eta era-kusten dizkit. Bakarrik ibiltzeko ere afizio handia dut eta etxerakoan, toki horien izenak galdetzen dut.

Bada Lesakan ezagutzen ez duken lekuren bat?

Aunitz, Lesaka handia da eta...

Lesakako paraje izenik bereziena?

Besamotzanbordakoerreka.

Bestak musikarik gabe?

Ezta pentsatu ere! Zurruta igual ez da derrigorrezkoa, baina musika...

Sanferminetan, kamioia, akordeoia eta mendia aparkatzen dituk?

Mendia eta kamioia bai. Kordiona egunen batean aterako dut.

Lesakako Sanferminak edo Goi-zuetako Amabirjinak?

Lesakarra izanik lehenbiziko sanferminak eta gero Amabirjinak.

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL
AGENZIA

Zurich Aseguruak

• Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak

Lan aholkularitza

• Nomina eta Aseguru Sozialak

Aholkularitza fiskala

• Errenta Deklarazioak, IVA...

Inmobiliaria

• Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua

Gestoria

• Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tfnoa eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO

Ortziraletan, 10etan
Mus Txapelketak
ERREKALDE
ostaturia
Tfnoa: 948630259 - BERA

IOREDENDA
© 948631076 • BERA

ERROTAR
Harategia
Eztegara 3
Tfnoa: 948 630 198
BERA

IOREDENDA
Albistur, 39-K
☎ 627542
LESACA
• bitxikeriak •
• opariak •
• enmarkazioak •

KULTURA

Clown ikastaroan parte hartzeko epea uztailaren 12a arte zabalik

Uztailaren 22tik 28ra egingen da ikastaroa Beran

ttipi-ttapa

«Norberaren clown-a aurkitu nahian» izenburupean, Ramon Albisturrek gidatzen duen Mugabe Clown taldeak bigarren urtez ikastaroa antolatu du uztailaren 22tik 28ra, astelehenetik igandera. Horretarako uztailaren 12a baino lehen eman behar da izena, 948 456011 telefonora (Isabel Elizalde arteartetik ortzegunera) edo Ramon Albistur zuzendariari (948 631162) deitu behar zaie. Ikastaroa eta otorduak (lehenbiziko eguneko bazkaria eta azkeneko eguneko afaria ezik, gainontzeko otorduak barnean daude) 385 euro gostako dira. Ostatua ere hartu nahi duenak 470 euro ordaindu beharko ditu.

Ikastaro hau dakiten eta ez dakitenei irekia da eta clown ekintzetan erabateko murgiltzea eskaintzen duen 44 orduko ikastaroa da. Gehienez ere hamabillagan izanen dira ikas-



ARTXIBOKOA

Bigarren urtez clown ikastaroa egiteko aukera izanen da Beran.

taroan eta partaide bakoitzak bere clown sudur gorria eta adierazpen lanerako arropa eroso eraman behar du. Euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez egingen da ikastaroa.

ETENGABEKO IKASTAROA

Ikastaroa uztailaren 22an, astelehenean, arratsaldean hasi eta uztailaren 28an, igande

eguerdian akituko da. Gainontzeko egunetan, 10:00etatik 20:00etara izanen da, dagokien atsedenaldiekin. Uztailaren 27an, larunbata, egunaren akabailan tailer publikoa egingen dute, taldea osatzen duten partaideek nahi izanez gero.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, clown ekintza honek adierazpen ekimena irudikatzen

du: «Ez da pailazoarena egiten ikastea, geure barneko clown-a argitaratzea baizik». Clown lanak inprobisazioan oinarritzen den aktore jokorako bidea ematen du, ikusleekin harremanetan jarritz.

1980. urtean sortu zen Le Bataclown talde frantziarrak proposatzen duen estiloa eta filosofia segituko da Berako ikastaroan.

AZPIEGITURAK

Donamaria, Elbete eta Berako lanak Hirurteko Planean

Hirurteko Azpiegitura Planaren barnean Bera, Donamaria eta Elbeten egin beharreko inbertsioak onartu ditu Rafael Gurrea, Nafarroako Gobernuako Toki Administrazio kontseilariak.

Beran, Herriko Etxeko teilatua, aitzinaldea eta balkoiak moldatzeko 68.396,27 €ko lana egingen da. Nafarroako Gobernuak %57,3a ordainduko du, 39.232 €. Donamarian, Uxarrea auzoan, argindarra berrituko da. Aurrekontua 60.542€koa da eta Iruñetik 38.188,40 € ordainduko dute (%46,6). Iberdrola arduratuko da proiektua egiteaz eta lanen zuzendaritzaz (15.135 €). Elbeten ur garbi eta zikinen sarea berituko da, 97.800 €ko aurrekontuarekin (%58 Iruñetik) eta karrika horiek zolaberrituko dira 142.796 €tan. Toki Administrazioak %51 ordainduko du.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Asteleheneetik asteazkenera 9-13etara eta 15-19etara
- Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara
- Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

- ARTEKARI, S.L., © 948133328 • 133346. Faxa: 948133713
- Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- Bideragarritasun planak



Zalain Auzoa
© 948631106
BERA

Boda eta banketeak ematen dira

Lanchas

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera © 948630735 - 607 406781



BERA

Eskalatzeko aretoa ireki du herriko gazte talde batek

Eskalada ikastaroa emanen dute uztailaren 15etik 19rat

Asier GOGORTZA

Eskualdean bizi diren eskalada-zaleek badute non elkartu eta non entrenatu, ekainaren 14an ireki baitzuten Berako boulder-aretoa. Udalak utzitako lokal bat egokitu dute rokodromogisa, eta dagoeneko badira 35 lagun eskalatzera biltzen direnak. Altura ttikiko eskaladari deitzen zaio boulder, alegia, sokarik gabe eta toki ttiki batean egiten dena. Proiektu honen bultzatzaileek kontatu digutenez, 35 lagun horiek 75 euroko kuota ordaintzen dute urtean. Trukean nahi dutenean joaten ahal dira areto honetara euren giltzarekin. Dena den, gainerako eskalada zaleentzat astearte eta ortze-



ASIER GOGORTZA

Gazte bat boulder-areto berrian entrenatzen.

gunetan bi orduz irekia egonen da boulder aretoa. Lokala prestatu eta irekitzeaz gain eskaladaren inguruko ekitaldi gehiago ere egin nahi

dituzte gazte hauek. Horrela, umeendako ikastaro bat prestatu dute eta helduentzako bertze bat. Bigarren honek astebete iraunen du, uz-

tailaren 15etik 19ra hain zuzen. Hiru egunez aretoan bertan egiten dituzte saioak eta azken bi egunetan ibardingo arroketa joan dira.

FLASH

Clown ikastaroa

Uztailaren 12a arte izanen da astia clown ikastarorako izena emateko. Ikastaroauztailaren 22tik 27ra egiten da, eta interesatuek Axurara deitu beharko dute, 948 456 011 telefonora. Izenemateak 385 euro balioko du.

Pintura erakusketa

Carmen Calvo eta Marilen Iturrioz margolari irundarren lanak zintzilik daude jadanik Kultur Etxeko erakusketa gela. Pintura maite dutenek uztailaren 28a bitarte izanen dute aukera erakusketa bisitatzeke. Ordutegia: egunero goizeko 10etatik 14etara eta arratsaldeko 16etatik 19etara, igande arratsaldeetan ezik.

Kirolari buruzko solasaldia

Uztailaren 5ean kirol errendimentuaren alde sikologikoei buruzko hitzaldia emanen du Amaia Ramirez Euskal Herriko Unibertsitateko sikologia doktoreak.

Futbito Txapelketa

Uztailaren 15a izanen da azken eguna koادرilen arteko txapelketarako izen emateko. Aurten 12 taldetara mugatzea erabaki dute antolatzaileek, beraz izena ematen duten lehen 12ak jokatu dira. Jokalari bakoitzeko 6 euro ordaindu beharko da. Txapelketa uztailaren 16an hasiko da.

BERAKO BESTAK

Xabi Erkiziak egindako diseinuak irabazi du bestetako kartel lehiaketa

Argazkian ageri den hau izanen da aurten Berako Bestak iragarriko dituen kartela. Xabi Erkiziak egin du diseinua eta 7 lagunek aurkeztutako lanen artean berea aukeratu du epaimahaiak.

Etxez etxe banatuko den esku-

programaren portada izanen da ondoko hau. Bidenabar, aipatu behar da, uztailaren 5a dela azken eguna eskuprogramarako testuak entregatzeko. Jakina da zernahi gisako testu, poesia edo bertso argitaratzen direla.





belardenda
Mediku naturista
kontsulta
Masajista

Legia I., behea • BERA • © 948 630652



BERAKO BESTAK
Mugimenduak

TEL K
K MISET K
ISE K
N HI UZUNK U U. NEU I ET ISEINO BERN
Ezt r z h T I. F x 3 15 21



Xirail

© 948 631462
Altzate I • BERA

LESACA

Baztan-Malerreka-Bidasoako trikitixa txapelketa ortziralean

Arratsaldeko 7etatik aitzinera plazan ariko dira zortzi bikote gazte

Aitor AROTZENA

Sanferminen egitarauaren barnean indarra hartu du azken urteetan Baztan-Malerreka-Bidasoako trikitixa txapelketak. Aurtengoan bosgarren edizioa antolatu du Lesaka trikitixa taldeak, Udalaren laguntzaz. Ortziral honetan, 19:00etatik aitzinera egingen den saioan 14 eta 18 urte arteko trikitilariak osatutako zortzi bikotek hartuko du parte. Tartean, joan den urteko txapeldunak, Nekane Etxandi eta Esti-txu Elgorriaga lesakarrak. Beraiekin batera Joseba Olagarai eta Nagore Ansalas (Etxalar), Maitane Aierza eta Aiora Urdangarin (Asteasu-Ataun), Olatz eta Ainhoa Zabala (Etxarri Arantz), Haizea Unamuno eta Lierni Garmendia (Altsasu), Beñat Lu-luaga eta Lierni Garmendia (Anoeta) eta Urko Pontesta eta Izaro Saizar (Lasarte-Berastegi) ariko dira. Guziek saria izanen dute parte hartzearen truke. Horretaz gain, irabazleek txapela jantziko dute eta bertze sari berezia emanen du Lesaka trikitixa taldeak. Gero, berendua izanen da.



ARGAZKIA: JOANA IÑIGEZ

Nafarroako Kutzako Urrezko Adina Elkarteak 50 eta 60 urte esposaturik bete dituzten herriko borts senar-emazte omendu zituen ekainaren 27an. Gauza batengatik edo bertzearengatik, hiru bikotek ezin izan zuten ekitaldira agertu. Azkenean, Domingo Igarzabal eta Evangelina Etxabide eta Jose Ordoki eta Manuela Ubiria omendu zituzten beraien Urrezko Ezteietan.

BESTAK TXOZNETAN

Aurtengoan ere egitarau zabala prestatu du Txoznen Batzordeak

Aste hondarrean hasiko dira aurtengo Sanferminak eta programa ofizialaren berri, aldizkari honekin batera datorren gehigarri berezian izanen duzue. Baina azken urteetan be-

zalaxe, txoznetan ere izanen da besta egiteko modurik. Larunbatean, 19:00etan «Ez gaude denok, presoak etxera» lemapean manifestazioa antolatu dute errepresaliatuen lagu-

nek. San Fermin egunean, 23:00etan kontzertua eskainiko dute Sen, Utikan eta Ufetuak taldeek. Astelehen, peñen jautsiera-koak garbitzeko aparra prest izanen dute eta azkeneko egunean, herri bazkaria eta kantaldia izanen da.

FLASH

Arranoko zozketa

Arrano elkarteak urtero antolatzen duen Sanferminetako zozketan aurtengoan hankasartze bat izan da, zozketa egunean hain zuzen ere: txartelan 22a zen ematen zen zozketa eguna, eta egun horretan, larunbata zenez, ez zen zozketarik izan. Ohi bezala, ekaineko azken aurreko ortzirala da kontuan hartu behar dena, hau da, ekainaren 21a. Beraz, saritutako zenbakia ONCEk egun horretan egindako zozketan saritutako zenbakiaren azken laurak dituen izan da, hau da, 7490a.

Igerilekuak zabalik

Urte sasoiak eta, tarteka, eguraldiak agintzen duenez, zabalik daude udal igerilekuak ekainaren 15etik aitzin. Eguneko sarrerako prezioak: 18 urtetik goitikoek 2,70€, 11-18 urtekoek 1,50€ eta 4-10 urtekoek 1,10€. Sasoi osoko txartela hartuz gero, helduek 26,90€, gazteek 14,80€ eta haurrek 10€. Bertze bi aukera ere badaude: Uztailaren 15etik aitzinera 17,75€ helduek, 9,75€ gazteek eta 6,70€ haurrek. Abuztuaren 15etik irailaren 15era, azkenik, helduek 9€, gazteek 5,05€ eta haurrek 3,40€. Igerileku bati, kentzen ahal den estalkia jartzeko asmoa du udalak, beraz, abudo ne-guan ere probetxuko da.



ANSONEA jatetxea

Eguneroko menua eta karta
Asteburu eta jai egunetan menu
berezia

Foruen Plaza 1 • ☎ 948 631155 • BERA

ZUBIONDO JATETXEA

Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

kixkuna
Ileapaindegia
Tel: 948 637429
Bittiriako Plaza, 3 behea
LESACA

ETXALAR

Bi urteren ondotik hasi da Correos baserrietara posta eramaten

Iruritako Izaskun eta Iñaki Aleman anai-arrebak trikitixa txapeldun

Joseba eta Nerea

Duela bi urte hasitako arazoak genuen Etxalaren Correosekin. Herriko postaria, Fidel Cruz, jubilatu zenetik herriko baserrietara ez zen postarik ailegatzen Correosek geure herrian eskaintzen zuen zerbitzua murriztu zuelako. Hori dela eta, udalak hainbat neurri hartu zituen. Adibidez "Junta arbitral de consumo" naurkeztu zuten baserriarrek beraien kexa Correosek lehengo zerbitzuarekin segitzea eskatuz eta azkenean Nafarroako auzitegiak baserriarren alde jokatu du, Correosi baserrietako zerbitzua berriz ere hastea eskatuz. Dagoeneko hasia da posta barnatzen baserrietan.

Trikitixa Txapelketa

Eskualdean gelditu zen ekainaren 23an egin zen III. Etxalarko Trikitixa Txapelketako txapela. Izaskun Aleman eta Iñaki Aleman Iruri-



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

Landagain eskolako azkeneko eguna

Uda gainean dugun honetan herri desberdinetako eskolek beraien ateak itxi egin ziren. Ekainaren 20an kurtso bukaerako besta ederra ospatu zuten haur guziek. Mari Jose Gamio eskolako zuzendariak, egin zutenaren berri eman digu: «Goizez herriko frontoian Planetario Ibiltariaren bisita izan genuen eta arratsaldean, printzipioz igerilekura joateko asmoa genuen edo bertzelan ermitara oinez baina azkenean eguraldiak batere lagundu ez zigunez eskolan bertan gosalduta genuen eta jokuak egiten aritu ginen».

tako anai-arrebak suertatu ziren irabazle 13 bikotek parte hartu zuten lehiaketan. Denak 14 urtetik beheetikoak ziren

eta hau izan zen sailkatuena txapeldunen ondotik: Tolosako Unsain anaiak, Itziar eta Zarautzeko Jagoba Uran-

ga eta Ainitze Ondarra eta Lesakako Raquel eta Itsaso Fagoaga. Herriarren ordezkaritza Iru- ne eta Itsaso Elizagoie-

Zolaberritze lanak

Hiru astez geldirik egon ondotik, berriz ere hasi dira herriko zolaberritze lanak. Nafarroako Gobernuak teknikari batzuk obra- lanak geldiarazi ond- otik, joan den ekai- naren 26an hasi ziren berriz ere akabatu ga- be utzi zuten karrete- ren breaztatzearekin. Beraz, uztailean ber- tan aitzineko TTPI-TTA- PAN aipatutako bide guziak moldatuko di- tu Orsa, S.L. enpre- sak 139.796,91 euro- ko aurrekontuarekin (23.260.249 pezeta).

nek bete zuten eta txapelketako tituluenak izan- nik paper bikaina bete zuten.

Jone Elgorriaga antolatzailea gustora agra- ri zen. «Espero baino bikote gehiagok hartu du parte, beraz balorazio positiboa egin behar dugu. Txapelketaren maila ere hagitzen ona izan da, bikote aunitz- entzat parte hartzen zuten lehenbiziko txapelketa zela kontutan hartuz. Bai irabazleek eta baita gainerakoek ere etorkizun oparoa du- tela bistan gelditu da».

«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat
pentsurik egokiena
Tfnoa: 948635214
ETXALAR

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK
Altzate, 5 • © 948630083 BERA

LEGARRA

Prentsa	Fax publikoa
Liburuak	Plastifikazio
Tabakoa	a
Opariak	Enkuadernazi
Kukuxumusu	o
kamisetak	lanak
Egunero irakur	
lanak	

Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 •

HERRIKO
ISTATU • JATETxea

OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA
Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA

IGANTZI

San Juan Xar egunak herriko eta inguruetakoko hainbat jende mugiarazi zuen

Herri kirol taldea Iparraldeko Jokuen txapelketan parte hartzen ari da

Amadeo ARRETXEA

Urtero bezala, eraeroaren 24an San Juan eguna ospatu genuen herrian. Goiz goizetik, eguraldiak lagundu ez bazuen ere, jende saila hurbildu zen San Juan Xar ermitara. Meza ondotik, ohitura den bezala, bertara hurbildutakoek beraien zangoak busti eta hiru iturrietatik ura edan zuten, Biltoki Titikioek paratu zuten ostatuan zerbait hartzen zutelarik. Aurten, euria zela eta, dantzariak ezin izan zuten beraien dantza saioa eskeini. Aldi berean, herriko jubilatuek besta ospatu zuten Baratzondoko Zahar Etxean, bazkaria eta guzi.

Herri kirol taldea Iparraldeko Jokuetan

Igantziko herri kirol taldeak bere prestaketa lanak egiten hasia da, urtero bezala San Ferminetan egiten den Nafarroako txapelketari be-



ARTXIBOKOA

Sinesmenari edo ohiturari segituz, aurten ere ehundaka lagun bildu dira San Juan Xarren ekainaren 24an.

gira. Horretarako ederki etorri zaie Nafarroako Herri Kirol Federazioak bigarren urtez antolatu duen Iparraldeko Jokuen txapelketan parte hartzea. Txapelketa hau proba ezberdinez osatua dago: harri jatsotzea, txingak, inguruetako, koxkor biltzea, za-

kua eta lasto altxatzea. Zazpi dira parte hartze- ra animatu diren igantzarrak: Migel Angel Etxarte, Joseba Urbis-tondo, Iban Txoperena, Manu Telletxea, Iñaki Bereau, Karlos Sein eta Xabi Sein. Ordezkaritza- rik zabalena lasto altxatzen dugu, parte har-

tzen ari diren hiru bikoteak Igantzikoak baitira. Igande honetan Mugiron egin behar zen azken saioan gertatutakoaren berri jakin gabe, orain arte Iñaki Bereau-Mañu Telletxea eta Xabi eta Karlos Seinen arteko berdintasun handia zegoen. Ingude al-

txatzen, Xabi Sein Jotsetxo Urrutia leitzarrari gailendu zitzaion lehen saioan eta berdindu egin zuten bigarrenean. Zaku lasterketan, Igantzi Berriozarren kontra ari da eta bi saioak galdu egin ditu herriko taldeak.

Nafarroako III. mendi bizikleta jautsiera txapelketa

Larunbat honetan, uztailak 6, Igantziko Biltoki antolaturik, Nafarroako mendi bizikleta jautsiera txapelketa izanen dugu Igantzin. Jautsiera probari arratsaldeko 15:30etan ematen zaio hasiera, baina aintzinetik partehartzailerik herriko frontoian izena eman beharko dute eguerdiko 12:00etatik 14:00etara. Horretarako Federazioko lizentzia beharrezkoa da. Herriko ordezkariak izanen dugu seguruenik, gaur egun Nafarroako txapeladuna baita Xabi Telletxea.

ATM S.A.


AUXILIAR DE
TRANSFORMADOS
METALICOS, S.A.

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
- Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)

Igantziko Bentak • ☎ 948 637 411 • Faxa: 948 637 313

PIKABEA *pinturak*
Molinero drogerian
galdetu

**Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio
arazoak moldatuko dizkizugu**

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • ☎ 948 630240 • 948 631495 • **BERA**

SOULE

Hileta artea

☎ 948 453444 • 629 659583
ARIZKUN



☎ 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN

ARANTZA

Igantzikoko igerilekura joateko ez da autobusik izanen uda honetan

Haur gutti apuntatu denez, autoetan moldatzea erabaki dute gurasoek

Nerea ALTZURI

Karriketan bertzelako bixitasuna nabari da, eskolaumeak oporretan daudelako. Guraso Elkartek udako programa prestatu du aurten ere. Kirola ardatz hartuta, igerilekua, frontoia eta plaza izanen dituzte gune herriko hurrek. Aspaldiko urtetan igerilekura joateko ohitura bada herritarren artean. Hasieran Berako igerilekura joaten ziren, antolatzen zen autobusa probextuz. Igantzikoko igerilekura joaten ziren hondar urteotan herritarrek uztaila eta abuztuaren goizetan, baina aurten ez da autobusik antolatuko. Igantzikoko igerilekura joateko kotxetan moldatuko dira aurten gurasoak. Haur guttik eman du izena igeriketa ikastaroan eta, orokorrean, igerilekuan goiza pasatzeko. Beraz, zerbitzu hau paratzea garestiegia ateratzen delako, kotxeekin moldatuko dira aurtengoan. Baina honetan ez da gel-



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Ander Agestak Elgetako 23 urtez beheitiko lau terdiko txapelketan parte hartu du, Estatu Batuetako Bakersfieldetik bueltan. Finalerdietara ailegatu zen, baina Altunaren kontra 17 eta 22 galdu zuen.

ditzen gaztetxoaren jarduna. Patinaia eta bertzelako kirol ikastaroak ere izanen dira herriko frontoian. Uztailaren erdialdetik hasi eta abuztuaren akabera bitarte agerian geldituko da gaztetxoaren mugimentera. Azken orduan aldatzen ez bada, aurten ere Raul

Iparragirre herriko gaztea izanen da kirol irakaslea.

Beñat Mitxelena kordiolaria

Ekainaren 15ean akordiolari txapelketa egin zen Irunen. Lehiaketa honetan Beñat Mitxelena 14 urteko gaz-

tetxoak egin zuen lanik hoberena 12-15 urte bitarteko bere kategorian. «Yaben» eta «Donostiako iru damatxo» jo zituen eta puntuzorik altuena berak erdietsi zuen. Duela 8 urte hasi zen Beñat ikasten bere aita, Gregorio Mitxelena musikari ezaguna-

FLASH

Ikasturte bukaera

Eskolako ikasle eta irakasleak oporretan daude. Ekainaren 21ean akautu zuten ikasturtea, Urdazubi eta Donibane Lohitzunen egunpasa eginez. Goizean, Urdazubiko lezeak ikusi eta arratsaldean Donibane Lohitzuneko hondartzara joan ziren. Eguraldia lagun zuten eta egun ederra pasatu zuten.

Larraburukoak Zahar Txokon

Etxalarko Larraburua jubilatuko 30. urtearen eguna Arantzan pasatu zuten. Goizean Igantzikoko San Juan Xarren meza aditu, ura edan eta hankak bustitzeko tarte hartu, eta bazkaria eta arratsaldea herrian iragan zuten gero. Zahartxok egin zuten otordu aski goxoa. Etxalartarrek egun ederra pasatu izanen zutelakoan gaude.

rekin. Ordutik honat Xalbador Madariaga lesakarra du irakasle. Lesakako musika eskolan segitzen du ikasten Mitxelenak eta joan den urtean Arrasaten egin zen akordiolari txapelketa famatuan ere parte hartu zuen. Zorionak eta segi lanean!

616 513 497

Pititi

ESKABAZIOAK

(C/Amelia)

31010 DONEZTEBE (NAFARRA)



Tel.: 948 456 080
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Alberto
RETEGI
abokatua

Altzate 17
BERA
© 948 630 763

MALERREKA

Udal aurrekontuak onartu dira Ezpeluraldeko lau herrietan

Ur-hornidura eta zolaberritzetan egingen dira inbertsio handienak

ttipi-ttapa

Beintza-Labaien, Donamaria, Oitz eta Urrozko udalek behin betikoz onartu dituzte aurtengo udal aurrekontuak.

Beintza-Labaienen 266.744,67 euroko diru sarrera-irteerak izanen dituzte. Inbertsioetan 140.562,19 euro joanen dira. Hirigintza Udal Plana idazteko 21.561,79 euro gastatuko dira. Dena den, inbertsiorik handiena kanposantua mol-

datzen egingen da, 93.156 euro. Mendiko lanetarako, azkenik, 12.020 euro erabiliko dira.

Donamariako Udalak 453.827,11 euroko diru sarrera eta irteerak izanen ditu. Inbertsioetan 280.344,96 euro joanen dira.

Hirurteko Planean sartu den Uxarreko elektrifikazio lanetarako 57.775,29 euro bideratuko dira. Azkarra-



ARTXIBOKOA

Leurtzako urtegi inguruan zenbait lan egingen ditu Urrozko Udalak.

gako ur-zikinen sarea berritzeko 56.046,97 euro eta ondotik, karrikak zolaberritzeko 126.212 euro. Udal hirigintza plana idazteko 35.640 euro beharko dira eta mendiko lanetarako 30.050 euro. Ur sarea moldatzeko 101.871 euro beharko dira.

Oitzzen, udalak 266.723 euroko aurre-

kontua izanen du. Inbertsioetan 114.925 euro gastatuko dira. Gehina mendi lanetarako izanen da, 57.804 euro. Herriko argiak berritzeko 12.621 erabiliko dira eta argiteri publikoa moldatzeko 40.669 euro.

Urrotzen, azkenik, 327.404,51 euroko sarrera eta irteerak izanen dituzte. Inbertsioetan

235.476,68 euro joanen dira, gehien bat herriko ur-hornidura eta saneamendu sareak berritzeko eta ondotik egingen den zolaberritzerako (174.173 euro). Leurtzako urtegi inguruan egiteko 18.030 euro erabiliko dira. Bi ibilbide seinalizatuko dira, etxola akitu eta su egiteko leku berriak moldatuko dira.

ITUREN

Omenaldia eskaini zitzaion Unai Apeztegia pilotari aurtiztarrari

80 lagun bildu ziren afarian

Iban ISASI

Ekainaren 22an omenaldia egin zioten Unai Apeztegia pilotari aurtiztarrari. Aurtengogan, bigarren mailako eskuz banakako txapelketaren finalera ailegatu zen Apeztegia eta irabazteko puntuatu ere izan zen. Baina irabazten duenean ez ezik, galtzen duenean ere auzotarren animoa izanen duela ikusi zuen Unaiak.

Arratsaldean joaldunak eta txistulariak herrian barna beraien ibilaldia egin zuten. Harrigarriena, Iñigo Pascual omenaldian ikustea izan zen. Txapeldunak, brometan bazen ere, hainbat txistu eta oihu entzun behar izan zituen. Aurtizko elkarteak 80 bat lagun bildu ziren afaltzera. Unaiari eta bere emazteari plaka eta lore sorta eman zieten.



Urrezko Eztaiak Zubialdean

Joan den apirilaren 17an Manuel Bazterrika eta Hilaria Mutuberriak ezkondu zirenetik 50 urte bete zituzten. Urrezko Eztaiak ospatzeko joan den ekainaren 15ean, larunbatean, Iturengo San Martin elizan, Meza Nagusian bildu ziren, beren senitartekoei lagunduta. Ondotik, senide guzkiei Iturengo Altxunea erretegiak bazkaldu zuten. Zorionak bikote!

ZUGARRAMURDI - URDAZUBI

Ikasturte akabailako besta egin zuten eskolan ekainaren 21ean

Pello Añorga ipuin kontalaria eta herri kirolak izan zituzten

Margari eta Koro

Haurrak pozik ditugu: ikasturtea bukatu dute eta besta pollita batekin ospatu ere: azkeneko egunean (ekainaren 21ean) Pello Añorga, ipuin kontalaria etorri zitzaien eta bera aditzeko aukera izan zuten. Ondotik herri kirolak antolatuak ziren eta hoietan izerdi eta irri pila bat bota zituzten, eta akitzeko eguerdian Urdazubian denak elkarrekin bazkari batean bestari akabaila eman zioten.

Bertzalde, eta eskola kontu segituz, berri honak ditugu heldu den ikasturterako: Haur hezkuntzako plaza irakasle fijo batek bete duela. Hunek lasai pittat ematen dio gurasoei.



ARGAZKIA: KORO

Hurrengo ibilaldia irailaren 15ean egingen da Donibanera.

Mendi ateraldia

Gan den ekainaren 30ean Zugarramurdi-Etxalar ibilaldia egin ondoren, Atxuria mendi taldeak pausa hartuko du

udako bi hilabeteetan. Usaian bezala, ez da irteerarik antolatu uztaila eta abuzturako, bero haundia egiten duelako eta jendeak bakantza,

besta eta ixtorio franko izaten dituelakoz. Hurrengo ibilaldia irailaren 15ean egingen da eta kostaldera izanen da (Donibanera).

BERTIZ

Etxeberria moldatzeko 372.680 euro

ttipi-ttapa

Bertziko Jaurerriko Natur Parkean dagoen Etxeberria moldatzeko 372.680,23 euroko (62 milioi pezeta inguru) gastua onartu zuen Nafarroako Gobernua ekainaren 24ko bilkuran. Bi urtetan egingen da gastu hori: 203.556,85 euro aurten eta gainerako 169.123,38 euroak heldu den urtean.

Etxeberria moldatzerakoan, Naturaren Interpretazio Zentruko eta ingurumen hezkuntza programako bisita gidatuen harrera lekua bertan egitea da Nafarroako Gobernuaren xedea.



PAGOLA
TXISTORRAREN IZENA
© 948 630 054
Altzateko Plaza, 2
BERA



I CHE
MALDAERREKA, S.L.

FUNERARIA
ZERBITZUAK
DONEZTEBE BEILATOKIA

Bortziria eta Malerrekan
24 orduko zerbitzua beilatokian
eta etxean prezio guzietan

Trasladoak Iruñea, Donostia, Irungo
ospitaletatik edozein herrietara

☎ 948 637404
☎ 900 704704



Vins Coup France
Betiko patxarana
Zure patxarana

GURE PRODUKTUAK:
KULUXKA Patxarana
KULUXKA Sagar Likorea
KULUXKA Melokotoi Likorea

VINS COUP FRANCE
5 RUE HUGUES · 40101 DAX
TFNO: 00 33 558 74 05 06

DONEZTEBE

Celestino Aranguren noaindarrak irabazi zuen XXIV. Herri Lasterketa

Bestetako kartel lehiaketako sariak ere banatu ziren

ttipi-ttapa

Celestino Aranguren noaindarrak irabazi zuen ekainaren 23an Erreka elkarteak 24. urtez antolatutako Herri Lasterketa. 23 minutu eta 30 segundutan egin zuen 8 kilometroko lasterketa, biagrran izan zen Javier Ruizek baino 9 segundu guttiago. Aingeru Mindegia leizarra hirugarren izan zen, Angel Garate iruritarra laugarren, Alberto Barberena elizondarra seigarren eta Joseba Juanena doneztebarra hamargarren.

Hamabortz kategoriatan banatutako ehun bat korrikalarik hartu zuen parte lasterketan. Emakumeen artean ere Noainera joan zen garaipena, Pili Ayala gailendu baitzen. Beteranoetan Orofinotarrentzat izan ziren garaipena, Patxi gizasemeetan eta Rosa emakumeen artean. Pedro Bañares, Erreka elkarteko lehen-dakariak banatu zituen sariak. Gazte mailako



Ekainaren 25an udal kiroldegian omendu zituen Arkupeak elkarteak aurtren 85 urte eta 50 urte ezkonduzik bete dituztenak.

mutiletan Xabier Elejalde donostiarra izan zen irabazle. Nesketan, Errekako korrikalariak osatu zuten podiuma: Naiara San Miguel garaile, Miren Mangado bigarren eta Maialen Zamorano hirugarren. Infantiletan Ibai Mariezkurrena eta Jaione Ordoki doneztebarrek irabazi zuten. Alebinetan Iñigo Ortiz eta Maitane

Larretxeak. Benjamine-tan, Iñigo Goñi donamariarrak eta Oihana Mitxelena doneztebarrak eta aurrebenjamine-tan Borja Arregi doneztebarrak eta Itziar Vizcay burlatarrak. Ttikienak hartu zituen kategoria berezian, Errekako Fermin Estanga (Erreka), Iñigo Oskoz eta Elena Ezkurak osatu zuten podiuma.

DIARIO DE NAVARRA

EUSKARA

5.176 euro bildu dira euskararen alde eskualdean

lazko abendutik aurtengo otsailaren 28ra arte eskualdeko denda eta ostatuetan eltzetuak paratu ziztuzten euskararen aldeko dirua jasotzeko.

Zehazkiago, «Azken pezetak/iberak eta lehen euroak euskararen alde» deitutako kanpaina honen bidez Kontseilua finantzatzeko dirua bildu zen. Guztira 5.176 euro bildu ziren gure eskualdean: Hauexek dira herriz herri ateratako diru kopuruak:

- Baztan: 1.515 €.
- Bortzirriak: 2.202 €.
- Malerreka: 425 €.
- Sara: 121 €.
- Azkain: 30 €.
- Leitza: 610 €.
- Goizueta: 273 €.



BAZTAN

ALTZARIAK zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak



121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

MEDIKUNTZA NATURALA NATUROPATIA

ONDORIOETATIK INDARTZEKO:

- Diabetia • Asma • Buruko mina • Oinen izerdia
- Larru azaleko alergia • Zizareak • Prostata, etab...

IKUSMENAREN BERRESKURATZEA

- Miopia
- Bista alfertua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-kataratak

GIHARRE ARAZOAK

- Bixkortzea
- Artritria, erreuma
- Artrosia, Lunbalgia
- Bihurdurak, etab...

KONTSULTA ORDUTEGIA

Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldeaz 2-7etara. Ordua eskatu

San Marcial, 7-4 IRUN

GOIZUETA

Musika eskolan izena emateko epea zabalik uztaila bukaera arte

Laxaro Salaberria herritarrek, hamabi egunez egin du Donibane Garazitik Santiagorako Bidea

Esteban AROTZENA

Kordiona, kitarra, pianoa, trikitixa, txistua, zeharkako txirula, perkusioa edo saxofoiak jotzen edo behar bezala kantatzen herriatik inora mugitu gabe ikasi nahi duenari aukera ederra eskaintzen dio aurtengo Aralar udal musika eskolak. Horretarako aurrebaldintza bakarra, uztaila bukatu baino lehen Herriko Etxean izena ematea da. Dena den, pauso hau eman aurretik informazio gehiago jaso nahi duenari 948 504489 telefono zenbakian esanetan diote jakin beharreko guztia.

Musika Eskola haur edo gazteekin lotzen baldin badu ere jende askok, bertan ikasteko

adina inolako oztopoa ez dela adierazten du argi eta garbi zuzendaritzak. Honen eredu ekainean bukatu den kurtsoa bera izan da, 5 urtetik 55 urte bitarteko ikasleak izan baititu Aralarrek Goizuetan.

Donibane Garazitik Santiagora 12 egun eta 4 orduz

Orain dela aste batzuk ttipi-ttapan egindako elkarrizketan gero eta bizkorrago zegoela esaten zuen Laxaro Salaberria ibiltariak. 45 urte beteak dituela kontuan hartzen baldin badugu, ez zen errexa hori sinistea, baina Donibane Garazitik Santiagora bi-

tarteko ibilaldian egin duen marka ikusita, esandakoa harrokeri bat ez zela ederki asko erakutsi du Labeko mutilak.

Maiatzaren 19ko goizean atera zen Laxaro Behenafarroako hiriburutik, eta 30erako Santiagoko katedral aurrean zegoen. Hamabi egun eta lau ordutan bete zituen bi hirien arteko 774 kilometroak, egun bakoitzean 64 kilometro batz besterik. Tendiniki batek ordu batzuetako atsedena hartzeraz behartu zuen Salaberria bide erdian zegoela. Horregatik ez omen du erabat bete bere helburua, 12 egun juxtu egin nahi baitzuen aipatutako bidea.



ARGAZKIA: LAXARO SALABERRIAK UTZIA

Laxaro Salaberria, Santiagoko katedralaren aurrean. 12 egun eta 4 orduz egin zuen Donibane Garazi eta Santiago arteko 774 kilometroak.

Ainhoa Zubiriren ipuina saritua

Andres Narbarte «Xalto» eskolan DBH bigarren maila bukatu berria duen Ainhoa Zubirik, Kaperottiki base-rikkoa, Nafarroako Go-

bernua antolatutako literatur lehiaketako narratiba modalitatean lehendabiziko saria irabazi du. Saritutako lanak, «Luma» izenburuarekin, amona baten oroitzapenak kontatzen ditu.

ARESO

Ekainaren 20an ireki zen herriko botikina

Sokatira taldea ongi ari da lur gainean

Juana Mari SAIZAR

Ekainaren 20an herriko botikina ireki da. Ordutegia, astearte eta ostegunetan 13:30etatik 15:00etara.

Zirkulazio zerga

Uztailaren 6tik aurrera ibilgailuen zirkulazio zerga ordaindu ez dutenei bankutik pasatuko zaie.

Pista konponketa

Iturbeltxatik hasi eta Gorritiko mugaraino doan pista konpondu behar dute.

Zorraz kobratzea

2000-2001 zorrazko exekutibo bidez kobratzeko enpresa bat kontratatu du Udalak. Ordaintzen ez dutenen kontuak enbargatu eta



ARGAZKIA: MIKEL ILLARREGI

Sokatiran Euskal Herriko lur gaineko txapelketan parte hartzen ari da herriko taldea. Aurtengo ederki ari dira eta irabazetara dirudien Nuarberen ondok, hortxe dabilta bigarren posturako lehian.

beste neurriak hartzea ere aztertzen ari da.

Abesbatza

Ekainaren 16an Obe-

rena Abesbatzak Meza abestu zuen eta ondoren emanaldia eskaini zuen. Akustika izugarria omen du Aresoko

elizak eta gustora galditu ziren Oberena abesbatzakoak, baita entzuten egondako herritarrek ere, noski.

LEITZA

Barriola txapeldun!

Irabazten ez denean ere animo!

Mikel ILLARREGI

Honez gero, buruz buruko txapelketaren ajeak asentatzen joan diren arren, Abelek lortutakoa denbora luze baterako ahaztezina bihurtu da. Meritoa berak du, noski. Baina ezin ukatu jarraitzaileek, frontonera joan zirenek eta telebistatik ikusi zutenek animoa besterik ez ziotela eskeini. Ondoren, eta juerga bereziren bat egiteko, aitzakia handirik behar izaten ez denez, Sanjoan bezperakoa baino San Juan egunekoa bihurtu zen. Toki eta alde guztietatik entzuna izan arren, zorionak Abellei-tzarren partetik.

Igerilekuak zabalik

Ekainaren 22an zabaldu ziren igerilekuak eta irailaren 8ra arte, 11.00etatik 20.00etara arte zabalik izanen dira. Hona hemen sarre-
ren prezioak:

- Familikoa, sasoi-guzirako: 102, 17€.
- Bost urtetik behera: dohain.
- 6-10 urte artekoak: Astegunekoa 1,80€, jaiegunekoa, 2,40€, 10 bainuko txartela 15,05€ eta sasoi guzikoa 18,05€.
- 11-17 urte artekoak: Astegunekoa 3€, jaiegunekoa 3,60€, 10 bainukoa 22,55€ eta sasoi guzikoa 27,05€.
- 18 urtetik gorakoak: Astegunetan 3€,

jaiegunetan 4, 80€, 10 bainukoa 26,15€ eta sasoi-
soikoa 51,10€.

Ikastaroak ere antolatutuzte Bizkortzen enpresaren langileek. Hauek bi astekoak dira eta uztailaren 1ean hasi ziren. Hurrengo uztailaren 15etik 26ra. Hirugarrena hilaren 29tik abuztuaren 9ra eta azken-
ena 19tik 30era. Gazte eta helduentzat has-
tapeneko eta trebakun-
tza ikastaroak izanen dira. Prezioa 20 euro in-
guru. Uztailean «libu-
ruak igerilekura» kan-
paina ere izanen da. Egunero bi2 sorosle eta atezain bat izanen dira.

Saralegik hirugarrenean ere ezin

Mieltxo Saralegik, bi aldiz saiatu arren, ez zuen lortu Munduko marka berria ezartzea



MIKEL ILLARREGI

Prentsak eta komunikabide guziek Abelen garai-pena goraipatu zuten. Izan ere, hiru tantutan utzi zuen lau aldiz txapeldun izan den Beloki.

Zizur Nagusian. Aurtengo hirugarren saia-
kera zen, baina huts ho-
netan ere. Beste saio-
txoren bat izanen dela
ziur gaude eta animo bi-
tartean.

Kultur erabilera Maxurrenean

Uztailaren 9tik 21era Okile tailerreko eskula-
nak ikusgai izanen dira,
asteartetik larunbatera,
19:00etatik 20:00etara
eta igandetan 12:00eta-
tik 13:30etara.

Udan merkataritzan edo ostalaritzan

Aurtengo udan merka-

taritzan edo ostalaritzan
lana errezago aurkitu
nahi izanez gero, uda-
letxean izena emateko
edo lan orientazio zer-
bitzua deitzeko (619
829289 telefonoa) deia
luzatu du Plazaolako
Partzuergoak.

Batasunaren ilegalizazioaren inguruan

Alkateak sinatutako bandoak Espainiako Se-
natuak Batasuna lege-
kanpo uzteko legea
behin betirako onartu
duela eta, joan den as-
tean astebeteko gel-
dialdi instituzionalaren
berri azaltzen zuen.

FLASH

DBHkoak «flauta» joz

...flauta eta beste ha-
maila instrumentu. Bi-
kaina, inguruko institu-
tuko DBHkoekin egini-
ko lana eta honek eman
duen emaitza. Laurehun
baino ikasle gehiago
frontonen eta hainbat
kanta eskeiniz ez da lan
makala.

Azal lehiaketa

Plazaola aldiakariaren
azalaren lehiaketako la-
nak aurkezteko epea,
ekainaren 30ean amai-
tzen zen. Leitzako fes-
tak zen lehiaketaren
gaia. Aurrerak eta Lei-
tzeko udalak antolatu-
rikoaren erakusketa uz-
tailaren 7an egingen da
Aurreran. Sariak San Ti-
burtzio egunean ema-
nen dira.

Haurtzaindegia udan?

Haurtzaindegiko hau-
rren gela bat eskatu du-
te aurtun bertara joan
diren haur batzuen gu-
rasoek uztailerako. Ge-
la bat eta joku-gela es-
katu dute uztaila goize-
an erabil ahal izateko
eta gurasoek beraiek
hartuko dute hezitzaile
edo zaintzailearen bat.

Frontona ere bai

Beste urtetan bezalaxe,
«Denok bat» guraso el-
karteak udako oporre-
tan 11:00etatik 13:00e-
tara frontona zabalik uz-
tea eskatu dio Udalari.

100 urte

Maiatzaren 30ean, An-
doainen bizi den Maria
Olaetxea Sagastibel-
tzak 100 urte bete zi-
tuen. Horregatik udalak
zoriondu asmoz gutuna
igorri zion eta honekin
batera herriko armarr-
ria. Zorionak eta urte as-
koz...



MIKEL ILLARREGI

**Ekainaren 22an zabaldu ziren igerilekuak eta irailaren 8a arte irekiak egonen dira. Bizkortzen enpresak, bi asteko ikastaroak ere antolatu ditu, haur, gaz-
te nahiz helduentzat.**

BAZTAN

Bidelagun boluntarioen elkarteak egoitza berria zabaldu du Elizondoko

Ekainaren 21ean egin zen inaugurazio ekitaldia

Rakel GOÑI

Ekainaren 21ean zabaldu zen Bidelagun elkarteak Elizondoko Santiago karrikan duen egoitza berria. Bidelagun elkarteak, xaharrak edo beharrea daukaten pertsonak laguntzeko bolondresak biltzen dira. Duela kasik hiru urte sortu zen elkarteak, batez ere adinekoei laguntzeko. Azken urteetan emigrazioa indartu denez, gaur egun emigranteei ere laguntza handia eskaintzen zaie. Egoitza irekitzearekin, zerbitzua hobetu egingen da.

Haur Hezkuntzako Lehen zikloa

Balleko Udalak Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko zentruaren kudeaketa zerbitzua kontratatatzeko lehiaketa deia egin du. Kontratuaren aurrekontua 76.111,17 eurokoa da eta proposamenak uztailearen 22ko eguerdia baino lehen aurkeztu behar dira udal bulegoetan. Es-



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Lekarozko Institutuan kirolarekin eta kulturarekin zerikusia duten ekitaldiak izan zituzten ikasturte akabailan, ekainaren 18an. Lehenik, Xabier Mikel Errekondo eta Jabier Ortigosa eskubaloiz jokalariek beraien kirol ibilbideari buruzko solasaldia eskaini zuten eta ikasleen galderei erantzun zieten. Ondotik, patioan kontzertua eskaini zuten musika ikasleek.

kaintzak abuztu hasieran zabalduko dira.

Lanak Elbeten

Baztango Udalak Elbeteko ur-hornidura eta saneamendu sareak berrietzeko eta karrikak zo-

laberritzeko lanak lehiaketa bidez emanen ditu. Proposamenak uztailearen 22a baino lehen aurkeztu behar dira. Lanen hasierako aurrekontua 247.606,72 eurokoa da.

Zikinkeria Xorroxin errekan

Xorroxin erreka garbi kontzen ez dela eta Foruzainen denuntzia jaso zuen Erratzuko alkateak. Ondotik, batzarrea egin zuten herrian,

kontrolik gabeko zabortegiei buruz. Gisa honetako zaborra uzteko lekua bilatu arte, auzo bakoitzak bere ingurua garbitzea eta debeku seinaleak paratzea erabaki zuten.



PERTSONAIA

Letizia REKARTE

Hirugarren Irungo Akordeoi Lehiaketan

Miguel Iparragirre irakaslearekin Baztango Musika Eskolan ari diren bi akordeolari gazte-tok parte hartu zuten ekainaren 15ean Irungo Anzaran auzoko akordeoi lehiaketan. Argazkian ageri den Letizia Rekartek hirugarren saria eskuratu zuen bere kategorian. Jaione Elizagoienek ez zuen saririk lortu, baina arras maila ona eman zuen.

ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostalua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte
ELIZONDO
© 948 581807 • 948 581853

BAZTAN
FUNERARIA
Mateo Lertxundi

TANATORIO ZERBITZUAK
HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
EHORZKETA ZERBITZUAK • TRASLADOAK

Pedro Axular, 6 • ELIZONDO
• © 948 580373 • 608 776176

Carlos
Garaikoetxea
Etxenike

abokatua
Aseguru orokorrak

© 948581468 • 948580433
Frantziarako etorb. 12 •
Ameztialde 3B • ELBETE

BAZTAN

Azpilkuetako Sanferminak
uztailaren 5etik 8ra

Egun nagusian kantaldia eskainiko du Jon Bergaretxek

Ortzileria 5

12:00etan besten hasmentako txupinazoa.
21:00etan ezkil jotzea eta ondotik Baztan-Zopak Herriko Elkartearen Gero, gaupasa FRANCISCO akordeolariarekin

Launbeta 6

10:00etan suziriak.
16:00etan mus txapelketa herrikoendako.
17:30etan haurrendako txokolatada. **20:30etatik** afari ordura arte eta **22:00etatik** aitzin TRIKIDANTZ taldea. **Goi-zaldean** gan-torri autobusa izanen da.

Igandia 7

San Fermin egune

10:00etan suziriak.
11:30etan Meza Nagusia elizan. **Meza** ondora hameketakoa.
18:00etan pilota parti-




Aurtengoan ere giro ederra espero dute Azpilkuetan, Sanferminetako hondar eguneko zikiro jatean.

dua, lau herritarren arteko desafioa. **20:30etan** kantaldia Jon BERGARETXEekin, Baztandarren Biltzarrak lagunduta. **Arratsean** gaupasa TRIKIDANTZ taldearekin.

Astelehena 8
Zikiro egune

8:00etan zikiroa erretzeko su biztea.
9:30etan suziriak eta gosaria zikiroaren prestazaleendako. **14:00etan**

zikiro jatea. **Arratsaldean** dantzaldia FRANCISCO akordeolariarekin. **22:00etan** afaria. Gero, dantzaldia FRANCISCOrekin eta Gaizoa Ni.



ARTXIBOKOA

Arizkungo eliza, Soubelet-en koadroan.

Soubelet-en
lanak
ikusgai
Arizkunen

ttipi-ttapa

Xabier Soubelet margolariaren lanak ikusgai izanen dira uztailaren 6tik aitzinera Arizkungo Sasternea etxean dagoen Xubiltz kultur elkartearen. Larunbatean **19:00etan** eginen da irekiera ekitaldia. Uztailla eta agorrilean **11:00etatik** **14:00etara** eta **16:00etatik** **20:00etara** zabalik izanen da. Iraila eta urrian aste hondarretan.

MENDI
OSTATUASantiago 25 - ☎ 948 580313
ELIZONDO

JATETXEA
 ☎ 948 580101
 Santiago 1
 ELIZONDO

MENDIALDE
Jatetxea

AMAIUR • ☎ 948453060

**ZALDUBI**

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • ☎ 948 580 562 IRURITA



Maderas GOMEN

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinu...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubi Poligonoa • IRURITA • ☎ 948 580 645

SARA

Ortillopitz baserriak Etxe Zaharren Elkarteko lehen saria jaso du

Igerilekua egun osoz zabalik izanen da uztailen eta abuztuan

Aña Mari eta Fred

2000ko uztailetik goiti bisitatzen ahal den Ortillopitz Sarako etxea saristatua izan da Parisen. Etxea Frantziako etxe zaharren elkartearen kidea da eta aurtengo elkartearen lehiaketa irabazi du, berritze lanen kalitateari esker, bertzeak bertze. Horri esker, 5000 euroko saria eskuratzeaz gain, etxea ondare historiko bezala sailkatua izan da. 2000. urtean Ortillopitzek 8.000 bisitari izan zituen, eta 2001ean 10.000.



SAN JOSEPE ESKOLAK UTZIA

San Josepe eskolako haurrak Lordat-eko jauregian.

Igerilekuko atea zabalik

Ekainean, asteazken eta larunbatetan arratsaldeko 15:00etatik 18:00ak arte igerilekuko atea zabaldu zituzten. Buruilean, denborak laguntzen badu, ordutegi berdina izanen da. Bainan uztailen eta abuztuan egunero idekia izanen da 10:00etatik eguerdia arte eta 14:00etatik 19:30ak arte. Aurtengo, Herriko Etxeak sartzea helduentzat 2 eurotan finakatu du eta haurrentzat 1,10 euro. 10 sartzeko abonamendua proposatzen da 14 eurotan helduentzat eta 8,50 eu-

ro haurrentzat. Bertalde, 6 urtetik goitiko haurrentzat eta helduentzat ere tenis ikastaroa antolatu da, 8:30etatik 9:30ak arte eta 18:00etatik 21:00ak arte aste osoan. Animatezaile, Gregoire Saint Ville diplomatuak izanen da. Interesatuak direnak deitu 0676607340ra.

Ezkildorrearen berritze lanak

Sarako elizako ezkladorrearen berritze lanak heldu den larrazkenean hasi behar lirarteke. Joan den urtean Herriko Kontseiluak deliberatu bezala, Etienne

Lavigne izanen da antolatze horretaz arduratuko den arkitektoa, eta 8 232,25 euro jasoko ditu bere lanaren egiteko.

Herriko iturriak

Urari buruzko legeaz baliatuz, Herriko Etxeak herriko iturrien inbentarioa egitea deliberatu du. Bertalde, txostena osatu du Zazpi Fagoko eta Aikobeko (Larrungo mazelean) uraren erabilpena legezkoa izan dadin. CGA etxearekin egin ikerketak horiek 8 950,11 euroko kostua izanen du, eta 2 750,35 euroko azterketa gastuak gehi-

tu behar zaizkie. Gastu horien arintzeko, Herriko Kontseiluak Uraren Agentziari eta Kontseilu Orokorrari dirulaguntza eskatzea erabaki du.

Oihan lanak

Joan den otsailean Lizuniaga aldean gertatu sute handien ondorioz, Herriko Kontseiluak onartu du oiharen bulego nazionalak (O.N.F.) aurkeztu egitaraua. Programa horren arabera, 11 172,60 euro behar dira lbanteli aldeko pagoen berlandatzeko, zuhaztien garbitzeko eta zerrakuren berriz egiteko. Inbesti-

San Josepe eskolatik

Huna hemen San Josepe eskolako CE1 ikasturteko haurrek idatzitako artikulua gure aldizkariako:


«Gu, Sara-ko haurrak Ariège-ko departamendura buruz bidaiari autobusez partitu gira, maiatzaren 29-tik 31 arte. Lehen egunean, etxalde bat bisitatu dugu eta animala aintz ikusi ditugu: «Bixontek» (zezen amerikanoak), «Yack» batzu (Himalayako idiak), orkatzak, itsas-xerriak... Bigarren egunean, goizean, Lordat-eko jauregiaren bisitazterat joan gira eta hantxet 956 metretan bizi diren xoriak ikusi ditugu: Saiak, miruak, arranoak, gau-xoriak, huntzak, buzokak... Mirotz bat gure buruen gainean pautatu da. Arratsaldean, «Otsoen etxean» errezebituak izan gira eta Kanada-ko otsoen bazkaria ikusi dugu. Biharamunean, Montgailhar-ko aroztegiaren lehengoko ofizioak ehunka behatu ditugu. Interesgarria zen ikus-tea nola gure amatxik kozina egiten lehengo sukaldetan. Bidai eder bat egin dugu eta Sararat itzuligira, buruak orroitzape-nez beteak!»

zamendu horri 4 780,84 euroko funtzionamendu gastuak gehitu beharko zaizkio.

SAROB
okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA



Terraza eta plater konbinatuak

EKAITZA

Hostala • Kafetegia

Gelak TB eta bainuarekin

Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 **LESACA**



MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL 0559542519

AZKAIN

Parropiako kermeza familia giroan egingen da heldu den igandean

Udako aisialdi zentroan 3 eta 4 urteko haurrak onhartuko dituzte

Ihintza, Angela eta Eneko

Uztailaren 7an egingen da kermeza Martzenian, eskolako bestarekin batera. Haur, buraso, erakasle, eta laguntzaileek parte hartuko dute bestan.

Ostatua egun osoan idekia izanen da, pastizak ere salduko dituzte, loteria bat izanen da, bai eta ere jokoak haurrentzat.

Antolaketa komitearen gutunaren arabera, azken urteetako gastuak haundiak izan dira: eskolaren berritzea, mubleen erosketa, informatika eta bertze materiala pedagogikoen eskuratzea. Bilduko den dirua hortarako baliatuko da, bai eta ere parropiako bertze jabetasunen artatzeko, Xurionko pilota plaza adibidez.

Egitaraua: 8:30etan gosaria, 10:30etan meza elizan (haurrek animaturik). 11:30etan dantzak. Egurditan bazkaria. 15:30etan pilota partida xurion eta es-



ARGAZKIA: ENEKO JORAJURIA

Elkarteen egunak 120 pertsona bildu zituen ekainaren 23an. Euriarengatik iaz baino guttiago. Hala ere bazkaria Bil-Tokin egin zen eta haurren jokoak barnean egin ziren. Pilota partida eta dantza ikusgarria ez ziren egin, baina Jondoni eguneko sua piztu zuten plazan.

kolako besta. 19:00etan zintzur-bustitze-kontzertua, eta ondotik afaria.

Udako aisialdi zentroa

3 eta 4 urte arteko haurrak onhartuko dituzte aisialdi zentroan

uztailaren 10etik aboztuaren 30a arte, astelehenetik ortziralerat.

Ttikienak (3-6 urtekoak) Haurren Etxean errezebituak izanen dira, haundienak aldiz kirolean. Tenoreak ez dira aldatuko: goizetan

9:00etatik eguerdirat eta arratsaldeetan 13:30etatik 17:30ak arte.

Prezioak: 7,63€ eguna; 4,58 € egun erdia; 30,49 € astea; 45,74 € bi haurrentzat eta 57,93 € hiru harrentzat. Eguerdiko bazkaria ere har-

FLASH

Sagarmatharen bideo eta diapositibak

Hitz emana zuen beazala, Frederic Lafitte Azkaingo eskoletan ibili da Everest espedizioako diapositiben erakusteko. Bideo bat ere prestatu dute bereziki eskoletako haurrentzat. Publiko haundiarentzat aldiz bertze filma baten prestatzen ari dira eta espero dute laster zeribait eskaintzen ahalko dutela.

Dantzaldia

Akelarre taldeak dantzaldia eskainiko du plazan, uztailaren 13an, larunbatarekin, arratsko 22:00etatik goiti. Suzko zezena gauerditan piztuko dute. Besta komiteak antolatzen du gaua.

tzen ahalko da 2,44 €tan.

Aktibitateak: Komedioa musikala baten sortzea, Ziburu, Senpere eta Urruñako haurrekin topaketak, bizikleta egonaldiak, zaldia, herriko bestak, barku ibilaldia Ur-Hertsin, eta bertze...

Izen emateak uztailaren 9a aintzin egingez tokia segurtatua izanen da uda guzira.

ZOANSA

SEAT AUDI VW SALMENTA
MARKA GUZIEN KONPONKETA

Tel.: 948 62 55 55 • Faxe: 948 62 55 05

Banarta, 2 • Alkaiaga ind. • 31789 LESAKA
(Sarrera Beratik)

Landibar ZENTRO KOMERTZIALA URDAZUBIN

300 m² perfume markarik ezagunenekin
Usain-onak, kosmetikoak...
Euskal Herriko preziorik hoberenak

© (0034) 948 599 400 • **EGUNERO IREKIA**



EZKONTZAK

Jose Maria Martin Otxandorena eta **Anabel Ramirez Etxandi**, Lekaroz eta Erratzukoa, ekainaren 8an.

Ruben Garate Orondiz eta **Izaskun Bardezi Gonzalez**, Iruritaok, ekainaren 8an.

Francisco Javier Bikondo Dorremotzea eta **Maria Soledad Jaurena Jaurena**, Erratzu eta Arizkungoa, ekainaren 8an.

Pedro Maria Mendiburu Bidart eta **Rosa Maria Agerre Irigoien**, Azpilkueta eta Erratzukoa, ekainaren 8an.

Franciaco Javier Goldarazena Lanz eta **Maria Izaskun Uitzu Baztarrika**, Iruñea eta Leitzakoa, ekainaren 1ean.

Ignacio Iturrarte Alduntzin eta **Maria Luisa Navascues Zamora**, Tolosa eta Tuterakoa, Leitzan, ekainaren 22an.

Alberto Valentín Sagardia Rivera eta **Miriam Uxua Bonafonte Loiarte**, Irun eta Iruñekoa, Beran, ekainaren 15ean.

Juan Jose Gastiarena Balda eta **Maite Irisarri Babaze**, Ezkurra eta Etxalarkoa, ekainaren 22an.

Juan Mar Arburua Irazoki eta **Izarraitz Billaluze Aizpurua**, Zugarramurdi eta Oiarzungoa, ekainaren 15ean.

Faidel Altzugarai Altzuguren eta **Ana Etxebeste Apeztegia**, Bera eta Lesakakoa, ekainaren 29an.



SORTZEAK

Xabier Osakar Mutuberria, Zigakoa, ekainaren 6an.

Alba Azkarraga Goñi, Iruritaok, ekainaren 9an.

Olaia Ontsalu Danboriena, Elizondokoa, ekainaren 14an.

Ainhoa Mitxelena Iparragirre, Elizondokoa, ekainaren 16an.

Haizea Saenz Bezunartea, Leitzakoa, ekainaren 16an.

Nerea Arizaleta Sagastibeltza, Leitzakoa, ekainaren 19an.

Olaia Iturria Martinez, Etxalarkoa, ekainaren 9an.

Xabier Iparragirre Zubieta, Etxalarkoa, ekainaren 2an.

Zoe Alvarez, Sarakoa, ekainaren 11n.



HERIOTZAK

Fernanda Errandonea Altzuguren, Berakoa, ekainaren 12an, 68 urte.

Genoveva Larratxe Mariezkurrena, Berakoa, ekainaren 15ean, 93 urte.

Maria Victoria Arribillaga Lizarraga, Leitzakoa, ekainaren 14an, 71 urte.

Martin Elduaen Baraibar, Leitzakoa, ekainaren 21ean, 76 urte.

Francisca Aizega Lasarte, Saldiasakoa, ekainaren 16an, 88 urte.

Maria Cristina Santesteban Iriarte, Berroetakoa, ekainaren 13an, 79 urte.

Juan Miguel Goñi Elizegi, Oronoz-Mugairikoa, ekainaren 17an, 95 urte.

Esteban Oskoz Iñarra, Almandozkoa, ekainaren 20an, 90 urte.

Martin Guilçou, Sarakoa, ekainaren 20an, 85 urte.

Eskela eta eskertzak
ttiipi-ttapan
948 631188

Eskela jartzeko (nahi izanez gero argazkiarekin) 63,10 € ordaindu behar da **Rural Kutxako** 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea ttiipi-ttapa igoz faxez edo postaz, argazkiarekin eta sartu nahi den testuarekin batera.



Pedrito
IRIGOYEN IRAOLA

III. urteurrena (Bera, 99.07.06)

Seguru urte aunitz pasatuko direla eta hau hirugarrena bertzerik ez dela izanen, baina urteak kontatzen ahal izateak berak zurekin ahazten ez garela adierazten du.

Pepita, Josema eta Patxi



TANATORIO BAZTANDARRA

Santiago 52 • ELIZONDO

Baztan, Bertizarana,
Urdazubi eta Zugarramurdin
24 orduko zerbitzua tanatorioan
eta etxean prezio guzietan

☎ 948 581959

☎ 900 704704

DATUAK...

• San Juan bezperan irabazi zuen eskuz banakako txapelketa nagusia Abel Barriola leitzarrek. Hiru tantutan utzi zuen Ruben Beloki, lau aldiz txapeldun izandakoa.

• Urte berean lau terdiko eta eskuz banakako txapelketa irabazi ditu Barriolak. Azken txapelketa honetan hiru partida jokatu ditu eta hiru arerioen artean ez dizkiote 15 tantu atera.

• Lau terdiko txapela aita zenari eta Unai lagunari eskaini zien. Buruz burukoa Josu Irigoien eta Olaetxea prestatzaileei eta amari.



JAVIER SESMA / DIARIO DE NAVARRA

Abel BARRIOLA *Eskuz banakako txapelduna*

«Ametsa bete dut, baina denaren gainetik pilotan ongi pasatzen segitu nahi dut»

Aitor AROTZENA

Leitzarrik baikorrenak ere ez zuen amestuko San Juan bezperan Donostiako Atano III.lean ikusi zuena. Abel Barriolak erraustu egin zuen Beloki, lau aldiz txapeldun izandakoa. Hiru tantutan utzi zuen. «Egia esateko ez nuen hain errex irabaztea espero. Partiduari erritmoa eman nahi nion hasieratik, pilota jotzera atera naiz. Hasierako hutsegitean horregatik izan dira, baina irabazi nahi banuen gogor eman behar nuen» zioen leitzarrek. Belokik buruz buru sekulan hartu duen jipoirik handiena izan zen finalekoa, baina horrelakok gertatzen direla zioen Barriolak: «manimanoan beti bi zati izaten dira eta bigarrenen bitako bat erori egiten da. Sekretu gutxi daude buruz buru: gogor sakatu, ahalik eta hobekien errestatu eta huts gutxi egin, eta horixe egin dut. Beloki gaizki ari-tu da, finalean ikusi dena baino askoz gehiago aritzen da, baina buruz buruko txapelketak hori dauka».

Buruz burukoak sekretu gutxi dauka: gogor sakatu, ahalik eta hobekien errestatu eta huts gutxi egin... eta horixe egin dut.

Baina heldu den urtean edozeinek kanporatzen ahal nau.

Abel Barriola ametsak betetzen ari da. Urte bikaina izan du, lau terdikoa eta buruz burukoa irabazita. «Txikitatik nuen ametsa da, pilotan dagoen gauzarik handiena da». Eskuz binakako txapelketan Asegarcek ez zion parte hartzen utzi, enpresak kontratua berritzeko egindako eskaintza ez zuelakoz onartu.

«HELDU DEN URTEAN EDOZEINEK KANPORATZEN AHAL NAU»

Urte zailak izan ditu Abelek profesionaletan. Eskuetako minekin urtea pasatu zuen partidurik jokatu gabe. Poliki-poliki hasi zen lekua hartzen eta joan den urteko buruz bu-

rukoan bere dohaiak erakutsi zitue. Behe behetik hasita bost partidu irabazi eta finalerdietan galdu egin zuen Belokiren kontra. Aurten, lau terdikoa ere behetik hasi behar izan du, baina finalera ailegatu eta irabazi egin zion Eugiri. Buruz burukoan hiru partida jokatu eta hiruak aisa irabazi ditu. Hiru arerioen artean 14 tantu egin dizkiote. Abelen nagusitasunaren erakusgarri. Heldu den urtean ASPE enpresarekin hasiko da eta lesiorik ez bada tarteko, eskuz binakakoan ere ariko da Barriola. Baina aurtengoa errepikatzea ez dela errexa izanen badaki leitzarrek: «Listoia oso altu jarri dugu eta heldu den urtean edozeinek kanporatzen ahal nau, buruz burukoa oso konpetitiboa delako. Hori kontutan hartzen ez duena ez da manomanista ona izango. Pilota nire afizioa da, ordu asko sartzen ditut entrenatzen eta guziaren gainetik pilota nire afizioa izaten segitzea nahi dut, pilotan ongi pasatu nahi dut hemendik aurrera ere».

PILOTA



ARGAZKIA: FOTO ZALDUA

Aurtengoan hamabigarren edizioa bete du Joxe Ezkurra Memorialak. Urtero bezala, ehundaka pilotari gaztetxok parte hartu du txapelketan. Beraiekin batera, beteranoen mailan ere partida ikusgarriak ikusi ahal izan dira.

Ekainaren 15ean jokatu ziren XII. Joxe Ezkurra Memorialaren finalak

Eskuz binaka hameka kategoria ezberdinetan aritu dira pilotariak

Aitor AROTZENA

Ekainaren 15ean jokatu ziren Doneztebe-ko pilotalekuan hamabigarren Joxe Ezkurra Memorialaren finalak, hameka kategoriatan. Goizez ttikien txanda izan zen. Ttikien A mailan Iñaki Oskoz almandoztarrak eta Joseba Apeztegia iruritarrak ez zuten arazorik izan, Arkaitz Untxalo eta Ugaitz Elizalde iturendarrei 18 eta 1 irabazteko. Ttikien B mailan, Ibai Juanena urroztarrak eta Daniel Garcia Doneztebarrak 18 eta 5 irabazi zieten, Oronozko Iñigo eta Xabier Berhori.

Umeen A mailan, Haritz Juanena Saldiasta-

rra eta Gaizka Bendoiror Eratsundarra 18 eta 9, gailendu ziren Beñat Oronoz eta Ander Olai-zola lesakarraren kontra. Umeen B mailan, Alex Eizagirre eta Xamalz Vazquez beratarrek 18 eta 13 irabazi zieten, Markel eta Jon Jorajuria aranztarrei. Haurren A mailan, Urrozko Unai eta Xabier Madariagak 18 eta 8 irabazi zieten, Iruritako Unai Barbarena eta Arraiozko Mikel Mindegia. Haurren B mailan, Berako Mikel Goienetxe eta Andoni Martinezek 18 eta 8 irabazi zieten Julen Oskoz eta Jon Altzuri aranztarrei. Infantilen B mailan, Doneztebe-ko Jon Mi-

txelenak eta Urrozko Xabier Babazek 18 eta 12 irabazi zieten, Imanol Baleztena eta Urko Loiarte zubietarrei.

ARRATSALDEAN GAZTETXO GEHIAGO ETA BETERANOAK

Arratsaldeko partidetara pasatuz, infantil A mailan, Saldiasko Unai Urrutia eta Almandozko Gaizka Otxandorena aritzekoak ziren Haritz Madariaga urroztarra eta Donamariako Igor Arregiren kontra. Baina bezperan behatza xehetu zuen Unai Urrutiak eta Asier Goñik hartu zuen bere lekua. Halere, Asier Goñik eta Gaizka Otxan-

dorenak 18 eta 15 irabazi zieten Madariaga eta Arregiri. Kadeteen A mailan, Iruritako Gorka Urtaşun eta Legasako Jesus Sarrateak 18 eta 16 irabazi zieten Joseba Pikabea eta Beñat Mitxelena aranztarrei. Kadeteen B mailan, Oronozko Josu Goñi eta Asier Arretxea narbartearrak 18 eta 15 irabazi zieten Elizondoko Imanol Bertiz eta Dabid Otxandorenari. Beteranoetan, azkenik, Patxi Ordoki doneztebarrak eta Luis Mari Retegi beratarrek 22 eta 17 irabazi zieten Eratsungo Mariezkurrena eta Aranzako Tomas Telletxeari.

FLASH

Nafarroako Mendi Bizikleta Jautsiera

Larunbatean, uztailak 6, jokatu da Igantzin Nafarroako hirugarren mendi bizikleta jautsiera txapelketa, Igantziko Biltokik antolatua. Izen ematea herriko frontoian egin beharko da, egun berean 12:00etatik 14:00etara. Zazpi kategoriatan banatuko dira partehartzaileak, kade-teak, juniorrak, 23 urtez behe-itikoak, Master-30, Master-40, Elite eta Emakumeak, eta guzkiek Federazioko lizentzia beharrezkoa izanen dute. 1.700 metroko jautsiera izanen dute, Frainen hasi eta herriko plazan akautuz. Informazio gehiagorako 646 674406 telefonora deitu behar da.

Laxoa txapelketa final laurdenetan

Ekaineko azken aste hondarra eta uztailako bi lehenbizikoen artean jokatu dira Baztan-Errekako laxoa txapelketako final laurdenak. Doneztebe B Oitz Bren kontra ariko da, Oitz A Irurita Aren kontra, Arraioz A Doneztebe Aren kontra eta Irurita C Irurita Bren kontra. Beraz, finalaurrekoetan geldituko da joan den urteko finalistetako bat, Arraioz A txapelduna eta Doneztebe A azpitxapelduna aurrez aurre izanen baitira. Baztandarrak hirugarren izan dira bere multzoan eta doneztebarrak bigarren. Finalerdiak uztailaren 21 eta 25ean jokatu dira eta final nagusia abuztuaren 4an Oitzko plazan, bertze herri bateko bi talde finalera ailegatzen ez badira, berderen.

AGENDA egunez egun

OSPAKIZUNAK

AZKAIN

Uztailaren 7an Parropiako kermeza Martzenian, eskolako bestarekin batera. Haur, buraso, erakasle eta laguntzaileek parte hartuko dute bestan.

SOLASALDIAK

BERA

Uztailaren 5ean kirol errendimenduaren alde psikologikoei buruzko solasaldia emanen du Amaia Ramirez Euskal Herriko Unibertsitateko psikologia doktorea, 19:30etan Kultur Etxean.

IKASTAROAK

BERA

Ekainaren 22tik 27ra Clown ikastaroa egingen da. Interesatuak Axurara deitu behar dute (948 456011) uztailaren 12a baino lehen.

DANTZALDIAK

AZKAIN

Uztailaren 13an Akelarre taldearekin dantzaldia plazan, 22:00etatik goiti. Suzko zezena gauerditan piztuko dute. Besta komiteak antolatzen du gaua.

KONTZERTUAK

LESAKA

